

Narratiba



EHUN METRO
Ramon Saizarbitoria


crein

Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko



abaroa itzala, aterpea, babesa	«Saizarbitoriaren nobelen kontamolde berritzaileen abaroan zehaztu zuen.»	6
adats xerloa	« Adats horaila aurpegi inguruan, burko gainean zabaltzen zitzaioan.»	55
adokin galtzada-harria	«Odol gatzatuaz zikinduriko adokin gainean mokoka.»	60
afanean lanean, zereginean	«...lantegietan zutik irauten dute, haien makinaren inguruan mahoi urdinetan afanean mugitzen dira.»	35
ahalgabea ezgaia, ezgai izatea	«Berrogeita bat segundoko bizitzari eusten diok gorputza tentetu ahal izan gabe zango hautsia, zulatua, hustua, ahalgabea , odoleztatua...»	81
ahitu agortu	«Hogeita hamalagarrena ahitzen sentitzen duk.»	79
ahulaldi makalaldia	«Ez dakik zergatik baina ahulaldiak publikoki salatzea beharrezkoa dela.»	70
aldendu urrundu	«Arkupetik gero eta gehiago aldenduz –Udaletxea eskuinaldera utziz– “Zamudio”ren terrazarantz zuzentzen ditu pausoak.»	25
aldizka aldika	«Begiak arbeletik koadernora mugitzen ditu aldizka .»	75
algara barrea, irria, zantzoa	«Patiotik mutikoen algara hotsa entzuten da eguzkiak horizatzen duen zementuzko lur gainean errepikatzen.»	37
anitz asko, ugari	«Collage moduan tartekatzen diren testu desberdinen batura baino gehiago da nobela, koadro kubista bat ikuspuntu anitzen batura baino gehiago den bezala.»	10
antza itxura, irudia	«Gure ikastolak antz gutxi baitzeukan Stephen Dedalus gaztearen moduan irakasle fraidearen zigorrak...»	2
antzo moduan, bezala	«Zoro baten antzo bozina joz derrapatzen ikusi huen berriz ere.»	70
arkupe karrerapea, lehorpea, ataria	«Plaza errektangularreko arkupeak .»	91
arretatsu atentzioa duena	«Lekuko arretatsu batek, atletismoan ibilitako ikusle aditu batek, ezkerreko zangoa eskuinekoa baino apur bat gutxiago jasotzen duela nabarituko likek.»	40
arrotz kanpotarra, kanpokoa	«Ez du, ez huen, ez duk jendez betetako bebarrua ezagutu, agian herori sentitzan haiz arrotza .»	85
bafada bolada, kolpea	«Haize bafada bat sartzen zait bular azpitik.»	79
baranda eskudela	«Haurrak barandari heltzen dio, baranda despintatuari, herdoilduari, bustiari.»	29
barrena barrua	« Barrenera sartzen, gidatzen, eramaten haute.»	100
bebarru entrepantia	«Ez du, ez huen, ez duk jendez betetako bebarrua ezagutu, agian herori sentitzan haiz arrotza.»	85
bederen behintzat, behinik behin	«Ez dakik zenbat diren baina lau boz bederen bereizi dituk ALTO, ALTO O TIRAMOS esaten.»	24
betazal (párpado)	«Ez duk ikusten heure betazalak ixtera aurreratu den emakumearen eskua.»	95
betondo begi-ondokoa, bekozkoa	«...ezpain eta betondo handitutako aurpegi ilunak, bizartsuak, lozioz hezeak, grabeak, betaurrekodunak, egunon esateko luzatzen direnak.»	32
bits aparra, haguna	«Olatuak beren artean joz, harresien kontra topo eginez, barren bitsa kanporatuz lehertzen dira.»	29
borborka borborrean, erio handian	« Borborka ateratzen zaijan odol likatsua usain gozoak goragalea eragiten dik.»	79



borrero heriotz zigorraren exekutorea	«Flotatzen, handitzen, puzten sentitzen haiz heure heriotzak ikarutzen duen borreroaren aurrean.»	80
boz ahotsa	«Ez duala gehiago entzunen haren bozik besoa lepotik pasaz hau izango da gudaria esaten.»	86
brea galipota	«Arkupeko lurra breaz estalia eta lisatua dagoelarik, plaza erdian harri gogor eta irregularrez osatutako lurretik...»	26
bretxa Donostiako merkatuaren izena	«Gure amak egunero bezala kupoi-tira bat erosten zioz Bretxako itsuari. »	95
burokrata arloan ofizialetan sartuta dagoena	«Edo hiltegiatiko burokrata sadikoei...»	50
cherché la fame ospea bilatu	« Cherché la fame , que dicen los franceses»	46
dardara bibrazioa	« Dardara luze, zorrotza, zurrumbilo bat entzuten, sentitzen duk belarrietan eta irentsi ezin duan pilota, bola latz bat eztarrian.»	31
deus ere ezer ez, arean ere ez, fisik ere	«...ahoa asko zabaltzen ikusten duk baina hik ez duk deus ere entzuten buru barnean jiraka txistuka ari zaian zurrumbilo zorrotza izan...»	31
ehortzi lurperatu	«Laster ehortzi eginen dutela, usteldu eginen dela pentsatzen duk.»	101
entseatu saiatu	«Agur Manuel bat esatera entseatzen haiz.»	71
erokeria zorakeria, kirtinkeria	«Ekintzetarako beharrezkoa duk erokeria gramo bat, esan ohi huen.»	25
errebuelta bihurgunea	«Oso ongi nabari da etxe aurrean errebuelta ematen ari dela.»	83
errezatu otoiztu, otoitz egin	« Erreza ezazu bere arimaren alde.»	83
errieta sesioa, bronka	«Momentu hura kontserbatu egin nahi huen baina era berean, dudarik gabe espero huen zigorraren errietaren neurriaz eta izaeraz hituen kezka luzatu	31
eskapularioa idunekoa edo habitua (janzki erlijio)	«Salto egiteari utzi gabe domina- eskapularioa ateratzen duk burutik eta tandal urdinaren kremaileira ixten duk.»	41
et quis prend ses precautio bere prekauzioak hartzen	«Et quis prend ses precautions»	50
etsamina azterketa	«Ostirala zuan eta hurrengo astelehenean ospitaletik etsaminen ondorioak jakingo hituen.»	69
ezpaldu ezpaletan zatitu	«Azkenik hezurra ezpalduz , haragi eta zaina nahaste more batean heldua.»	68
falsete apur bat ozenago	«Kantatzen du haizea urratzen duen falsete bozak.»	58
garratz desatsegina, mergatza	«...luzaroan bota nahian gorderik hituen malkoak mahai ingurutik heuregana bueltatu diren aurpegiaren aurrean negar garratz batean lehertzen zaizkik.»	100
gatzatu koagulatu	«Parabellumaren pisuaz kargaturik daukan eskua altxatzen saiatzen haiz birika barrenetik sortu zaian eztula odol gatzatutako bola baten forman eztarria ixten...»	80
gogoeta erreflexioa, hausnarketa	«Ezin ezagutu duk bizitzatik heriotzara, sufrimendutik oraingo itxurazko bake horretarako bidean zein pentsamendu, sentsazio, gogoeta izaten diren jakitea.»	102
goragale oka egiteko gogo	«Borborka ateratzen zaian odol likatsuen usain gozoak goragalea eragiten dik.»	79
goseti grinatsu, antsietate handiz	«...baina hala ere aho-zabalik eta goseti , gero eta beharrezkoago egiten zaian oxigenoa bilatzen duk.»	24
haizatu aireztatu	«Jaka ez da haizatzen .»	66



hasperen arnasbehera	«... hasperen bat estaltzeko ahoratzen direnak»	30
hazkura hazgalea, hatz-mina	«Oso ondo sentitzen du, sentitu duk –hazkura eragiten dik– haren begiek ikuskatzen diaten gorputz partea.»	31
haztatu ukitu, eskuekin sentituz	«Bi gorputzak alde batetik bestera bueltak emanez haztutzen , bilatzen, hurrerutzen, urrutiratzen dira.»	53
hegada hegaldi	«Aireak daraman txapel batean hegada segitzeko bueltatzen dira buruak.»	34
hegaleko saskibaloiko jokalaria baten	«Atzekoek berriz basket-talde baten antolaketa eran aurrera egiten dute: hegalak , batez ere eskuinaldekoak...»	25
herdoil ugerra	«Haurrak barandari heltzen dio, baranda despintatuari, herdoilduari , bustiari.»	29
herren zango-motza	«Zango herren eta ahalgabe bat bezala lurrean arrastatzen duk.»	66
hilotz gorputz hila	« Hilotz ezagunik gerta ez dadin”	50
hiltegia mataderoa	«Idiak hiltegirainoko bidean doazen bezala, haurtzaroan erregela jasotzen zian fraideagana edo zigorra agintzen zuen aitagana joaten hintzen bezala.»	28
horaila horixka (ilea)	«Blusa tartetik zilborretik behera iradokitzen zaion itzal horailaren ikuskizunean galtzen da»	39
igurikimen itxaropena, peskiza	«Interpretazioa beti testutik abiatzen baita eta erabilera, berriz, irakurleon igurikimen eta xedeetatik.»	3
iltzetzatu iltzeduna	«Zapatila iltzetzatuen puntak lurretik altxatu gabe ematen dituzuen bitartean.»	41
instant momentua, liparra, eretia	«Atzetik auto baten faroek bidea argitzen dute instant batez»	41
intuitu susmoa izan, sumatu	« Intuitzeko sentsibilitate berezia huen.»	20
iradoki sujeritu, aditzera eman	«Mutila, blusa tartetik zilborretik behera iradokitzen zaion itzal horailaren ikuskizunean galtzen da.»	43
iztai sabela eta izterra lotzen diren gunea	«Parabellum-aren kanoia iztaian sartzen sentitzen duk»	36
j'en fais cadeau suelement à opariak bakarrik egiten dizkiet	« <i>J'en fais cadeau suelement à mes grands amours</i> » opariak bakarrik egiten dizkiet nire maiteei	37
jite izaera, eitea	«...tipoaren bizarrak, sudurrak, janzerak, jite osoak heure konfiantza merezi dik.»	27
jostun sastrea	«Amaren jostuna ezagutzen duk aurpegi guztien artean.»	100
juive et vieille judua eta zaharra		50
kadentzia segida	« Kadentzia , interbaloa, bitartea, erdigunea, lapsua kalkulatu behar da.»	19
kadentzia erritmoa, segida	«Beste olatu baten aurretik eta beste baten atzetik –kadentzia , segida, bitartea, erdiunea, lapsua kalkulatu behar da–...»	29
kaia nasa (muelle)	« Kaian itsasuntziak sartzen hasiak dituk, gehienak arrantza eskasarekin.»	
kateatu lotu	«Erlojua eskumuturrean kateatzen duk.»	54
katu gatiloa, kakoa	«Besoak luzatuz irudimenezko pistolen katuak zapalduz pertsegitu egiten dira jende artean.»	91



kikara katilua	«Kafe kikara barneetan beren koilarak eragiten dituzten eskuak.»	32
koldar kakatia, oilobustia, beldurtia	«Abilenak, trebeenak, bizienak, bizkorrenak ez dira bustitzen batzuetan, eta beste batzuetan busti egiten dira, ahulenak eta koldarrenak ez dira bustitzen sekula.»	29
kresal gezala, itsas gazitasuna	«...baina sandaliak blai-blai hituen eta bahekien ordurako kresala larruaren hondamena zela.»	30
kriston itzelezkoa	« Kriston tirotea omen zuan	34
laga utzi, gelditu	«Kaka, laga , biba, gora izan daitekeen hots behe bat.»	88
latz zakar, ezatsegina	«Dardara luze, zorrotza, zurrunbilo bat entzuten, sentitzen duk belarrietan eta irentsi ezin duan pilota, bola latz bat eztarrian.»	31
lekukoa testigua	« Lekukoaren galtzei helduz lehendabizi burua eta gero gorputza altxatzen du.»	103
likatsu lirdingatsua, lirdinga, (viscoso)	«Borborka ateratzen zaian odol likatsuaren usain gozoak goragalea eragiten dik.»	79
makaldu ahuldu, moteldu	«Zangoen martxa edo erritmoa gutxitu gabe, arnasa hartzearena makaldu .»	24
mantso lasai, poliki-poliki	«Negar egin beharko hukeela pentsatzen duk berriz ere eta negar lasai, makal, mantso ugari bati ekiten diok.»	101
mens sana in corpore sano buru osasuntsua gorputz osasuntsua	«— Oinez? — Mens sana in corpore sano »	38
minberatu bereziki mindua	«Azkenerako minberatuak eta malkoz beteak jarri zitzaizkidan begiak»	52
oihartzun soinu errepikapen efektua, durundio	«... plaza barneko lau aldeetan errepikatuz, oihartzun bakar batean entzuten dira. »	44
orro marrua, baurrea, makakorroa	«Hitz bat izan nahi duen orro basatia egiten du aurpegia lurraren kontra zanpatu baino lehen.»	87
parabellum 1898an sortutako pistola mota	« Parabellumaren pisuaz kargaturik daukaan eskua altxatzen saiatzen haiz birika barrenetik sortu zaian ez tula odol gatzatutako bola baten forman eztarria ixten.»	80
pasiera ibilaldia, paseoa, osteratxoa	«Egunkaria irakurtzen edo berriketan edo jendea pasieran ikusten.»	30
patrika sakela, poltsikoa	«Edo eskuak patriketan sarturik, besoak bizkar atzean gurutzaturik, ibai zaratatsu...»	90
pibota saskibaloiko jokalaria baten	«...erdialdetik — pibotaren posizioan— doazenak baino gehiago aurreratuz.»	25
ponpatu taupatu, (bombear)	«Ezpainetan, kokotsean, lepoan zehar bularretik behera joaten zaik bihur zital batean iturrika galtzeko ponpatzen duan odola.»	81
pospolo supizteko, sua pizteko ziria	« Pospolo pizte hotsa, 5ek hitz egiten duen bitartean entzuten da.»	23
preludio aurretik iragarritakoa	«...maitasunaren preludio maniako-depresiboa»	51
“pro nobis” gure partetik otoitz egin	«Sukaldetik aitonaren “ pronobis ” lehorrak entzuten hituen.»	84
probetxatu baliatu	«Egunero bezala hire anaia nagusiak, arduraduna partea ematera igotxen dela probetxatuz , eguneko lehendabiziko zigarroa pizten dik. »	95
purgatorio garbitokia	«Heure gogoan, infernuko, zeruko edo purgatorioko arimei buruz entzundako istorioak.»	83
sastatu zulatu	«Airean flotatzen sentitzen haiz, borondatearen indarrez sastatzen hauen berunaren kontra.»	72



sen intuizioa, zentzua	«Beharbada, edo seguru asko, sen hutsa duk hori»	25
setati tematia	«Belarria, lepoa, bularra setati laztanduak sentitzen ditut.»	54
tamariz milazka, zuhaixka generoa,	«Aitak aulkian tamarizpean segitzen zian.»	30
tanto-tantoka banan-banan	«Banan-banan, tanto-tantoka erortzen zaian odolarekin galtzen dituan segundoak kontaktzen dituk.»	87
testigantza lekukotasuna	«...haren presentzia beharrezkoa egiten zaik heure heriotzaren testigantza emateko.»	27
tindatu margoztu, (teñir)	«...-eta igandetako jaka urdina, gero beltzez tindatuko zutena.»	84
tinkotasun sendotasuna, irmotasuna	«Heure begiek goizeko lainoaren artetik ageri den eguzkiari heriotzaren tinkotasunez begiratzen ziotek. »	94
txingotan 'a la pata coja'	«Haur batzuk mantal beltzez jantziak txingotan ari dira.»	27
ukalondo ukondoa	«Mutila ukalondo batean bermatuz»	52
urratu egin, bete, esperimentatu	«Dakusagunez, euskal nobelagintzak oso azkar urratu zituen kontaketa bera auzitan jartzen duen metanobelaren arteko pausoak.»	6
urreztatua urrez estalia, urreko geruza duena	«...erregela beltzaren metalezko ertz urreztatu behatz batez igurtzen duelarik»	47
xede asmoa, helburua	«Interpretazioa beti testutik abiatzen baita eta erabilera, berriz, irakurleon igurikimen eta xedeetatik .»	3
xinaurri inurria	« Xinaurriak dirudite grisez, marroiz, urdinez jantzitako zango gaineetan»	31
zaina odol-hodiak, bena	«Belaren ukituaz azala urratzen, giharrak bilatzen dizkik, erdibitzen, mozten dizkik tendoiak, ebakitzen zainak .»	68
zango hanka	«Arnasa hartzea automatikoki egin nahi huke, zangoen eta batez ere, besoen mugimenduaren erritmoaren kontrolpetik libratu.»	24
zanpatu hautsi, zapalduz birrindu	«Hitz bat izan nahi duen orro basatia egiten du aurpegia lurraren kontra zanpatu baino lehen.»	103
zaunka adausi (txakurrena)	« Zaunka egiten die irteterakoan.»	32
zerko hesia	« Zerkoaren atzea iheslariak irabazi nahi duen Zamudio tabernaren ate hertsiek osatuko baitute.»	36
zerraldo zurrun, hilda	«...laurogeita hamahiru metrora daukaan lehendabiziko mahai gainean zerraldo eroriko haizela susmatzen duk...»	28
zian zuen (hika moldean)	«Neskak seriotasun komiko batekin begiratzen dio, zian , dik, eta bat-bateko determinazioa hartzen duela adieraziz, bere ezpainak hiretan jartzen dizkik.»	33
zital bilaua, doilorra, (mezquino)	«Ezpainetan, kokotsean, lepoan zehar bularretik behera joaten zaik bihur zital batean iturrika galtzeko ponpatzen duan odola.»	81
zoko txokoa, zokondoa	«Zigarro puntetik, paperek, kakahuete azalek arkupeetako zokoan babesa bilatzen dute.»	91
zola zerbaiten behealde edo azpialdea	«...indarrean dauden parametro literarioen zolan mugitzen dela euskal nobela garaikidea.»	7
zotz txotxa, palutxo	«Mihiarekin zotz erdia ezpain irribarretsuetan zehar paseatuz, Micheleren aldera begiratzen du.»	44
zurrunbilo biraka dabilen aire masa	«...buru barnean jiraka txistuka ari zaian zurrunbilo zorrotza izan ezik»	30